

ASOCIACIÓN PARA LA REVITALIZACIÓN DEL BILBAO METROPOLITANO  
BILBAO METROPOLITARRA BIRBIZTEKO ELKARTEA

2017 Urtarrila / 273 Zenbakia



BILBAO METROPOLI-30 ELKARTEAK SINGULARITY UNIVERSITY GLOBAL IMPACT  
CHALLENGE LEHIAKETAREKIN KOLABORATZEN ARI DA

Hilaren 19an, Bilbao Berrikuntza Faktorian Singularity University Global Impact Challenge lehiaketa aurkeztu zen, Rafael del Pino Fundazioarekin lankidetzan eta Metropoli-30 elkartearen babesarekin. Mundu mailako lehiaketa da, eta xedea aldaketa estrategiko teknologikoak sustatu eta sare sozialetan zabaltze-

ko gaitasuna duten gazte profesionalak eta ekintzaileak identifikatzea da. Irabazleak Global Solutions Program egitasmoan parte hartuko du. Programa horrek 3 eta 6 hilabete bitarteko egonaldia eskaintzen die Singularity University unibertsitateak mundu osoan hautatutako 80 parte-hartzaileei.

Elkarteak Bilbao Metropolitarraren 2035 ekimena ikuspegi estrategikoa aurkeztu du Portugaleteko Rotary Cluben; hitzaldia eta, ondoren, solasaldia eskaini ditu, honako izenburupean: **Bilbao metropolitarraren suspertzea, 2035. urteari begira.**

## Rotary Club (Portugalete)

Elkarteko zuzendari nagusiak Bilbao Metropolitarraren 2035 estrategia-  
ren ikuspegiaren aurkezpena egiteko gonbidapena jaso du Portugaleteko Rotary Cluben, abenduaren 12an hitzaldia emateko eta, jarraian, solasaldi bat egiteko, honako izenburupean: **Bilbao metropolitarraren suspertzea, 2035. urteari begira.**

Rotary Internacional zerbitzurako nazioarteko erakunde bat da. Erakundearen xedea da enpresa liderak eta profesional unibertsitarioak eta ez-unibertsitarioak batzea, euren komunitatean giza zerbitzuak emateko, lanbide guztietan etikara-  
arau zorrotzak sustatzeko eta munduan borondate ona eta bakea areagotzen laguntzeko.

## BBAG ondorioen aurkezpena

Bilbao-Bizkaia Action Group erakundeak 2016an antolatutako zazpi lan-saiotan zehaztutako ekintzen ondorioak jasotzen dituen laburpena aurkeztu da abenduan. Bilbao Metropoli-30 elkarteak ere parte hartu du horretan.

Bilbao Bizkaia Action Group diziplina anitzeko erakunde bat da. Sektore publikoko nahiz pribatuko ordezkariak biltzen ditu, turismoaren inguruko ikuspegi berezia emateko, zalantzarik gabe, gure helmuga turistikoki indartzeko auzi nagusian laguntzeko asmoz. Erakundeak kontsultarako elementu gisa eta 2020ko etorkizuneko strategiaren bidez Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritzak proposatutako ekimenak edo jarduru-



## La revitalización del Bilbao metropolitano mirando hacia el 2035



teko alorrak garatzeko elementu gisa jardungo du, eta, turismo-sektoreko atal publikoaz gain, industriako ordezkariak elkartuko ditu; izan ere, azken horiek hainbat proiekturen inguruko ezagutza eta esperientzia berezia eman ahal izango dute.



Lan honek eztabaidarako tresna inklusiboagoak eskainiko ditu Bilbao-Bizkaiaren turismo-sektorearen barruan, eta horrek sektoreen arteko lankidetzaren indartzen eta lidergo kolektibo egituratuagoa eraikitzen lagunduko du etorkizuneari.

Txostenean, 39 proposamen zehatz jaso dira guztira, Turismoaren eta Kanpo Sustapenaren Zuzendaritzari Bilbao-Bizkaiaren esparruan lan-ildo berria proposatzen laguntzeko hurrengo 3 edo 4 urteetarako.

### Global Impact Challenge 2017

Singularity University unibertsitatearen xede dira baliabide natural mugatuak dituzten eta eraldaketa-

ko prozesu drastikoen menpe dauden erronka itxuraz ukiezinak. Unibertsitatea NASA Ames de Silicon Valley eremuan dago, eta, bertan, aldaketarako osagai guztiak inpaktu potentzial handiko formularen bidez konbinatzen dira.



Mundu mailako lehiaketa da, eta xedea aldaketa estrategiko teknologikoak sustatu eta sare sozialean zabaltzeko gaitasuna duten gazte profesional eta ekintzaileak identifikatzea da. Irabazleak Global Solutions Program egitasmoan parte hartuko du. Programa horrek 3 eta 6 hilabete bitarteko egonaldia eskaintzen die Singularity University unibertsitateak mundu osoan hautatutako 80 parte-hartzaileei.



Rafael del Pino Fundazioaren lankidetzari eta Bilbao Metropoli-30

Abenduaren 14an, Singularity Universityren berrikuntza komunitatearen lehen topaketa antolatu zen Espainian; Bilbao Metropoli-30 elkarteak erakunde laguntzaile gisa hartu zuen parte, Chapter Singularity Bilbao-rekin batera.

Elkartek Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraioak, Mugikortasuna eta Lurralde Kohesioa Sustatzeko Sailak egindako kontsultan hartu du parte, Bilbao Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren berrikusketari dagokioenez.

elkartearen babesari esker, 2017ko edizio honetan parte-hartzaile berri bat dago. Parte-hartzaile berri hori Bilbon hautatu zen, Bilboko Udaleko Bilbao Berrikuntza Faktorian egindako aurkezpenean; izan ere, eraikin hori ekintzaile berriei eta susperraldian dauden teknologietan oinarritutako proiektuei zuzenduta dago.

José Antonio Garridoren hitzaldia

Joan den abenduaren 21ean, Elkarteko presidentek, José Antonio Garridok, hitzaldi bat eskaini zuen Banco Bilbao erakundearen zuzendari ohien talde batentzat; izan ere, interesa agertu zuten Elkartea garatzen ari den Bilbao Metropolitarra 2035 Estrategiaren etorkizuneko ikuspegiaren inguruan.

Hitzaldian azaldu zuenez, helburua azpiegituren paradigmatic balioen paradigmara igarotzea izan da, Bilbao Metropolitarraren biziberritze-prozesua behar bezala gauzatzeko, eta, horrez gain, nazioartean Bilbao hiriaren garapen estrategikorako eredia sendotzeko. Izan ere, gizarte osoari eta buruzagiei azaldu nahi izan zaie balioak zein garrantzitsuak diren hirien epe luzeko garapenerako, eta, bereziki, Bilbao Metropolitarraren garapenerako.



Bilbao Metropolitarraren LPPren berrikusketa

Bilbao Metropolitarra Birbizteko Elkartek Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraioak, Mugikortasuna eta Lurralde Kohesioa Sustatzeko Sailak egindako kontsultan hartu du parte, Bilbao Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren (BMLPP) berrikusketari dagokioenez.

Bilbao Metropoli-30 elkartek Idazkaritza Teknikoaren zeregina bete zuen 2006an, BMLPPren idazketa-prozesuan.

Onartu zenetik 10 urte igaro ostean, Bilbao Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialak (LPP) berrikuntza behar du, azken hamarkadan izan diren aldaketei erantzuteko,

baita egoera sozioekonomiko berri-  
tik eta hainbat plan eta proiektu  
betearaztetik eratorritako egungo  
agertokiari erantzuteko ere. Hori  
dela-eta, Bizkaiko Foru Aldundiak  
Bilbao Metropolitarraren LPPren  
berrikusketa bultzatu du; izan ere,  
parte-hartze publikoko prozesua  
ere gehitzen du.

Bilbao Metropolitarraren Lurralde  
Plan Partziala legez aurreikusitako  
dokumentu bat da, esparru metro-  
politarreko lurralde estrategia ezar-  
tzeko. Plan horretan, hainbat gai  
proposatzen dira: egoitzako eta  
industriako guneetan egin beharre-  
ko esku-hartze nagusiak, azpiegitu-  
ra nagusien kokapena eta egokita-  
suna, etorkizunean okupatu  
litezkeen zoruaren esparruak,  
natur-guneen babesa, mugikorta-  
sun-estrategiak edota hondatutako  
guneetako esku-hartzea, besteak  
beste.



Guztira, planak 35 udalerrri arautzen  
ditu batera: Abanto-Zierbena, Alon-  
sotegi, Arrankudiaga, Arrigorriaga,  
Barakaldo, Barrika, Basauri, Beran-  
go, Bilbao, Derio, Erandio, Etxeba-  
rri, Galdakao, Getxo, Gorliz, Larra-  
betzu, Leioa, Lemoiz, Lezama,

Loiu, Muskiz, Ortuella, Plentzia,  
Portugalete, Santurtzi, Sestao,  
Sondika, Sopela, Trapagaran,  
Ugao-Miraballes, Urduliz, Zamudio,  
Zaratamo, Zeberio eta Zierbena.

2017ko hasieran, Informazio eta  
Diagnosi dokumentua aurkeztuko  
da, eta 2017ko udazkenean, Berri-  
kuspeneren Aurrerapena.

[Zuzenbide eta enpresen segurtasun alorreko II. prestakuntza-saioa](#)

Urtarrilaren 16an eta 23an, Bilbao  
Metropoli-30 elkarteak “Zuzenbide  
eta enpresen segurtasun alorreko  
prestakuntza” II. ikastaroa antolatu  
du, Legal Consultors eta Fun4sho-  
ppers enprekin batera, profesio-  
naltasunak duen balioaren marko-  
an.

Edizio honetan, enpresa publiko  
zein pribatuetako administratzaileei  
eta goi-zuzendariei prestakuntza  
eta aholkua ematea helburu duen  
ikastaroa eskainiko da, enpresak  
aurre egin beharreko bi egoeraren  
ezagutzari dagokionez: Complian-  
ce Penal programa eta Zibersegur-  
tasuna.

Alde batetik, prebentzioko estrate-  
giak egiteko asmoz, jurista eta tek-  
nologoekin komunikazioa errazten  
duten enpresen eta erakundeen  
egoera penala.

Urtarrilaren 16an  
eta 23an, Bilbao  
Metropoli-30 elkar-  
teak “Zuzenbide  
eta enpresen  
segurtasun alorreko  
prestakuntza” II.  
ikastaroa antolatu  
du, Legal Consul-  
tors eta Fun4shop-  
pers enprekin  
batera, profesio-  
naltasunak duen balio-  
aren markoan.

Bilbao Metropoli-30 elkarteak datuen babeserako Europako araudi berriari buruzko jardunaldian parte hartu du, baita gai horiek tokiko enpresetan nola eragingo duten aztertzen duen mahai-inguru batean ere.

Bestalde, gaur egun dauden arriskuak ulertzea eta horiek murrizteko har daitezkeen neurriak ezagutzea; izan ere, urtero, 300 milioi zibereraso baino gehiago gertatzen dira gaur egun munduan.

Europako datuen araudi berriari buruzko jardunaldia

Pribatutasunari eta datuak babesteko Europako araudi berriari buruzko jardunaldian, Bilbao Metropoli-30 elkarteak mahai-inguru batean parte hartuko du, gai horiek tokiko enpresei nola eragingo dieten eztabaidatzeko.

Elkartea aitzindaria eta jakitun da gai horiek enpresentzat duten garrantziaz, Bilbao Metropolitarra 2035 ekimenaren erronkei begira.



### SKILLS

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak sustatutako bizkaia:talent erakundea buru duen, Bilbao

Metropoli-30 elkarteak koordinatzen duen eta Ekonomisten Euskal Elkargoaren, Bide, Kanal eta Portuen Elkargoaren eta Euskal Herriko Kimikari eta Ingeniari Kimikarien Elkargoaren lankidetzan duen Bizkaiko Profesionaltasunerako Gaitasunak programaren barruan, tailerrek egiten jarraitzen da Deustuko, UPV/EHUko eta Mondragon Unibertsitateko ikasleekin.



Otsailak 1: Irteera profesionalen tailerra. Elkargoen Egoitzak.

Otsailak 7-9: Talde-laneko tailerra. UD/ UPV-EHU.

Otsailak 8: Etika eta Balioen tailerra. Elkargoen Egoitzak.

Otsailak 22-23: Marka pertsonaleko tailerra. UPV-EHU/UD.

Otsailak 28: Autoezagutzako eta Adimen Emozionaleko tailerra. UD/MU.

Martxoak 7: Aurrez aurreko tailerra jardunean dauden profesionalekin. Elkargoen Egoitzak.



## prensa aldizkaria

Bilbao Metropoli-30 en web orrialdeko Prentsa Aretoan hurrengo albisteak irakur daitezke:

- "Sois los nuevos faros de la ciudad". El Correo, 15-12-2016.
- Los que dan lustre a Bilbao. Deia, 15-12-2016.
- Aburto condecora a los cinco Ilustres de Bilbao de este año. El Nervión, 15-12-2016.
- Los nuevos Ilustres de Bilbao. ElCorreo.com, 15-12-2016.
- Aburto entrega las distinciones a los cinco nuevos "Ilustres de Bilbao 2016". Europa Press, 14-12-2016.
- La 'B' de Bilbao tiene cinco nuevos embajadores. El Correo, 02-12-2016.
- Iribar hace doblete y también recibirá el premio Ilustre de Bilbao. Deia, 02-12-2016.
- Los nuevos Ilustres de Bilbao. El Nervión, 02-12-2016.
- Jose Angel Iribar, Sara Estévez, Xabier Kintana, Jose Antonio Garrido y Begoña Rueda, Ilustres de Bilbao 2016. Bilbao Actual, 01-12-2016.
- Jose Angel Iribar, Sara Estévez, Xabier Kintana, Jose Antonio Garrido y Begoña Rueda, nuevos Ilustres de Bilbao 2016. Eldiario.es, 01-12-2016.
- Iribar, Sara Estévez, Xabier Kintana, Jose Antonio Garrido y Begoña Rueda, nuevos Ilustres de Bilbao. Deia, 01-12-2016.
- Iribar y Sara Estévez, entre los nuevos Ilustres de Bilbao. El Correo, 01-12-2016.
- Jose Ángel Iribar, Sara Estévez, Xabier Kintana, José Antonio Garrido y Begoña Rueda, nuevos Ilustres de Bilbao 2016. Europa Press, 01-12-2016.
- Programa ANDREKintzailea de apoyo a mujeres emprendedoras en Bizkaia. Euskadinnova, 01-12-2016.
- "Hay que desdramatizar el fracaso". Deia, 02-10-2016.
- Bilbao Metropoli-30 participa en una misión comercial a Suecia. Europa Press, 21-09-2016.



[www.bm30.es/prensa](http://www.bm30.es/prensa)

**ABENDUAK 2**

Bilbao Bizkaia Action Group  
ondorioen aurkezpena.  
Bilbo.

**ABENDUAK 12**

Rotary Club.  
Gran Hotel Puente Colgante.

**ABENDUAK 13-14**

SKILLS programa. Eskumen  
teknologikoen tailerrak.  
UD/MU.

**ABENDUAK 14**

"Bilboko ospetsua 2016"  
banaketa ekitaldia.  
UD/MU.

**ABENDUAK 13**

Uniporteko Zuzendaritza  
Batzordea. uniport.

**ABENDUAK 14**

"2016ko Bilboko Ospetsua"  
sariak emateko ekitaldia.  
Bilboko Udala.

**ABENDUAK 14**

Global Impact Challenge  
2017.  
Madrid.

**ABENDUAK 19**

Bilbao Bizkaia Action Group  
taldearen bilera  
BEAZ.

**ABENDUAK 21**

Hitzaldia: Bilbao  
Metropolitarrak 2035  
estrategiaren etorkizuneko  
ikuspegia.  
Bilbao Metropoli-30 elkarte.

**ABENDUAK 22**

Bilbao Metropolitarraren  
LPPren berrikusketa  
Uniport.

**ABENDUAK 22**

Bilbao Metropolitarraren  
LPPren berrikusketa.  
Bilbao Metropoli-30 elkarte.

**URTARRILAK 10**

ITK. Batzorde Eragilearen  
bilera.  
Bilbao Metropoli-30 elkarte.

**URTARRILAK 12**

Europako datuen araudi  
berriari buruzko jardunaldia.  
VE Interactive Bilbao.

**URTARRILAK 13**

Kanpoko Sustapena 2017.  
San Mamés.

**URTARRILAK 16**

Zuzenbide eta enpresen  
segurtasun alorreko II.  
prestakuntza-saioa.  
Bilbao Metropoli-30  
elkarte.

**URTARRILAK 20**

Uniporten Zuzendaritza  
Batzordea. Uniport. Uniport.

**URTARRILAK 23**

Zuzenbide eta enpresen  
segurtasun alorreko II.  
prestakuntza-saioa.  
Bilbao Metropoli-30 elkarte

Mazatlaneko (Sinaloa)  
ordezkaritza.  
Bilbao Metropoli-30  
elkarte.

**URTARRILAK 24**

Bilbo Metropolitarraren  
Lurralde Estrategiari buruzko  
Foro Tematikoa. La Bolsa  
Eraikina.

**URTARRILAK 30-31**

CIDEuren Sare Iberiarra.  
Bartzelona.

**OTSAILAK 1**

Irteera profesionalen  
tailerra.  
Elkargoen Egoitzak.

**OTSAILAK 2-7-9-14-16**

"Getxo 2020 arlo  
estrategikoak. Sustapen  
Ekonomiko eta Iraunkorrari  
buruzko Jardunaldiak". Getxo  
Elkartegia.

**OTSAILAK 7-9**

Talde-laneko tailerra.  
UD/ UPV-EHU.

**OTSAILAK 8**

SKILLS programa. Etika eta  
Balioen tailerra.  
Elkargoen Egoitzak.

**OTSAILAK 22-23**

SKILLS programa. Marka  
pertsonaleko tailerra.  
UPV-EHU/UD.

**OTSAILAK 28**

SKILLS programa.  
Autoezagutzako eta Adimen  
Emozionaleko tailerra.  
UD/MU.

**MARTXOAK 7**

SKILLS programa. Aurrez  
aurreko tailerra jardunean  
dauden profesionalekin.  
Elkargoen Egoitzak.



Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano  
Bilbao Metropolitarrak Birbizteko Elkarte  
Gran Vía, 45. 48011 Bilbao.

Tel: 944 158 685 - Fax: 944 153 424

Email: [info@bm30.es](mailto:info@bm30.es) - URL: <http://www.bm30.es>

Facebook: <http://www.fb.com/BilbaoMetropoli30> Twitter: @BilbaoMetropoli

EUSKO JAURLARITZA 1992KO EKAINAREN 9AN  
HERRI-ONURAKONTZAT AITORTUTAKO ERAKUNDEA